**Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeak, 2018ko abuztuaren 29ean egindako bilkuran, 9/2018 gaiari dagokionez, ondoko erabakia hartu zuen, aho batez:**

"OGP Euskadi ekimena Sustatu duen Taldeak *OGP Euskadi* Foro Erregularrean parte hartzearen eta aldi berean ekimen horren ekintza planaren esparruan zerbitzu emaile izatearen bateragarritasunari buruz planteatutako kontsultaren inguruko ebazpena

**La Comisión de Ética Institucional del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en reunión celebrada el 29 de agosto de 2018, en relación con el asunto 9/2018, adoptó por unanimidad el siguiente acuerdo:**

"Resolución relativa a la consulta formulada por el Grupo Promotor de OGP Euskadi sobre la compatibilidad de participar en el Foro Regular de OGP Euskadi y ser a su vez prestador de servicios en el marco de la implementación de su plan de acción

## I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2018ko uztailaren 26an helarazitako posta elektroniko bidez, kontsulta bat jaso da *OGP Euskadi* ekimenaren Talde Sustatzailearen aldetik (Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek, hiru hiriburuek eta Innobasque-k osatutako taldea).

Talde hau Foro Erregular batekin lanean aritzen da aldi berean. Foro Erregular horretan, erakundeetako zortzi ordezkarik eta partaidetza eta auto-hautaketa prozesu baten bidez hautatutako sozietate zibileko zortzi ordezkarik parte hartzen dute eta beren eginkizuna Talde Sustatzailetik egiten diren proposamenak balioestea da.

2.- Burutu den kontsulta honakoa izan da: bateragarria da ala ez Foro Erregularrean parte hartzea eta aldi berean konpromisoak egikaritzeko zerbitzu emaile gisa jardutea? Posiblea al da (ala ez) lankidetza formulak diseinatzea, betiere administrazio prozedurak errespetatuta eta etika publikoari jarraituta, hartara planaren garapenean parte hartze garrantzitsua izan dezaketen baina arrazoi

## I.- CONSULTA

1.- Mediante correo electrónico remitido a la Comisión de Ética Institucional del sector público foral (CEI) el 26 de julio del 2018, se ha recibido una consulta por parte del Grupo Promotor de *OGP Euskadi* (grupo formado por el Gobierno Vasco, las 3 Diputaciones Forales, las 3 capitales e Innobasque).

Dicho grupo trabaja paralelamente con un Foro Regular. Este Foro Regular está participado por 8 representantes de las instituciones y 8 representantes de la sociedad civil seleccionados tras un proceso de participación y autoselección, cuya función es validar las propuestas que se hacen desde el Grupo Promotor.

2.- La consulta que se realiza es la siguiente: ¿es incompatible o no lo es participar en el Foro Regular y ser a su vez prestador de servicios en el despliegue de los compromisos? ¿Es posible (o no) diseñar fórmulas de colaboración que, respetando los procedimientos administrativos y desde la ética pública, permitan desarrollar marcos de colaboración con proveedores que pueden tener una implicación importante en el

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

horregatik (hornitzaile edo parte hartzaile desinteresatu izatearen artean aukeratu beharra) beren parte hartzea mugatuta ikusten duten hornitzaileekin lankidetza esparruak garatzeko?

desarrollo del plan pero que vean coartada su participación por este hecho (tener que elegir si ser proveedor o participar desinteresadamente)?

## II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen; horren helburua etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun ezaugarritzat finkatzea da.

Sistema horren esparruan, Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua (KPJK) onartu zen, kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen dituena, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzaileentzat.

2.- KPJK kodeak xedatzen du EEBa izango dela, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretu bidez sortu zena, berme goreneko organoa eta haren aplikazioarekin lotutako gaiak aztertuko dituena.

3.- Aipatutako foru dekretuaren arabera, EEBaren ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapen instrumentuetan xedatutako balioen, printzipioen eta jokabide arauen ez betetzeen inguruan jasotako kontsultak, kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

## II.- NORMAS DE APLICACIÓN

1.- Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 1 de marzo del 2016 se aprobó el Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de su sector público, con el que se quiere afianzar la ética pública y la ejemplaridad como señas de identidad.

En el marco de dicho sistema, por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral del 5 de septiembre de 2017, se aprobó el Código de Conducta y Marco de Integridad Institucional aplicable a la contratación pública (CCCP), que establece los valores éticos y normas de conducta, así como los principios de buena gestión y normas de actuación profesional que deben presidir las actuaciones en materia de contratación pública, tanto de los cargos públicos y empleadas y empleados públicos forales en todas aquellas actividades profesionales relacionadas con el ejercicio de sus funciones, como de las empresas y entidades licitadoras intervinientes en procedimientos de contratación.

2.- El CCCP establece que será la CEI, creada por Decreto Foral 3/2016, de 1 de marzo, el órgano de máxima garantía y quien conozca los asuntos relativos a su aplicación.

3.- Según el citado decreto foral corresponde a la CEI tramitar y resolver las consultas, quejas y denuncias recibidas sobre el incumplimiento de los valores, principios y normas de conducta establecidos en los diferentes instrumentos de desarrollo del Sistema de Integridad Institucional.

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

4.- Kontsultarekin zerikusia duten Foro Erregularreko pertsona eta kideei, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu emaile diren edo izan litezkeen heinean, KPJK kodea aplikatuko zaie, kodearen aplikazio eremua ezartzen duena KPJK kodearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- A las personas y miembros del Foro Regular sobre el que recae la consulta, en tanto son o puedan ser prestadoras de servicios para la Diputación Foral de Gipuzkoa, se les aplica el CCCP en virtud del artículo 3 del CCCP que establece su ámbito de aplicación.

## III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- OGP (*Open Goverment Partnership* / Gobernu Irekirako Aliantza) mundu mailako eta alderdi anitzeko ekimena da, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta teknologia berriak gobernagarritasunaren onurarako erabiltzeko helburua duten gobernuen konpromiso zehatzak bermatu nahi dituena.

OGP aliantzako kide izateko, herrialde parte hartzaileek Gobernu Irekiko Adierazpen bat onartu behar dute eta kontsulta publiko bidez garatutako herrialderako Ekintza Plan bat aurkeztu behar dute.

2018. urtearen hasieran, sareak mundu osoko eskualdez azpiko bost gobernu berri bakarrik barne hartzeko aukera ireki zuen. Aukera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburuek (*Innobasque*-ren sostenguarekin) ahaleginak eta indarguneak batzea erabaki zuten hautagaitza erkide bakarra aurkezteko eta, azkenik, OGP ekimenean parte hartzea lortu zuten, *OGP Euskadi* izeneko proiektuarekin (http://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/).

Aipatu den moduan, betekizun nagusietako bat zen 2018-2020 Ekintza Plan erkidea[1] prestatzea

## III. VALORACIÓN DE LA COMISIÓN DE ETICA INSTITUCIONAL

1.- La OGP (Open *Goverment Partnership* / Alianza de Gobierno Abierto) es una iniciativa multilateral a nivel mundial que busca asegurar compromisos concretos de los gobiernos para promover la transparencia, capacitar a los ciudadanos, luchar contra la corrupción y aprovechar las nuevas tecnologías para fortalecer la gobernabilidad.

Para ser miembro de la OGP, los países participantes deben respaldar una Declaración de Gobierno Abierto y entregar un Plan de Acción de país desarrollado con consulta pública.

A comienzos del 2018 la red abrió la oportunidad de incorporar a solo 5 nuevos gobiernos subregionales a nivel mundial. Ante esta oportunidad, el Gobierno Vasco, las 3 Diputaciones Forales y las 3 capitales (apoyados por *Innobasque*) decidieron aunar esfuerzos y virtudes y presentar una sola candidatura conjunta, consiguiendo finalmente entrar a formar parte de OGP, denominando el proyecto *OGP Euskadi* (http://www.ogp.euskadi.eus/inicio/).

Como se ha mencionado, uno de los primeros requisitos consistía en elaborar y presentar un

[1] http://www.ogp.euskadi.eus/dokumentuak/-/dokumentazioa/ogp/ekintza-plana/

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

eta aurkeztea (aurrerantzean, Plana). Plan hori herritarrekin batera sortu behar zen eta ondorioz, talde sustatzaileaz gain (hautagaitzaren zazpi administrazio sustatzaileak eta, aurrerago, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea ere, Innobasque-ren sostenguarekin), erakunde sustatzaileen zortzi ordezkarik eta sozietate zibilaren zortzi ordezkarik osatutako Foro Erregularra sortu zen. Partaidetza eta auto-hautaketa prozesu luze baten ondoren, Foro Erregularra izeneko foroa formalki eratu zen, besteak beste Talde Sustatzailetik burutzen diren proposamenak balioesteko eginkizuna duena.

Planaren helburua da erakunde parte hartzaile guztiek onartutako bost konpromisoak (mandatu planen bidez kontu ematea; open data Euskadi eta linked open data; herritarren partaidetzarako iLab-a; Open Eskola (herritarrei zuzendutako eskola irekia) eta Euskal Zuzentasun Sistema) garatzea eta gauzatzea. Konpromiso horiek bi urteren buruan egikaritu behar dira eta, horretarako, erakundeen aldetiko lan handiaz gain, alor honetan adituak diren zenbait zerbitzu kontratatzeko beharra planteatu da.

Hortik dator Foro Erregularraren kide izan eta, aldi berean, zenbait konpromisotan aurreikusitako ekintzak garatzeko kontratatua izatearen (betiere indarrean dagoen kontratazioaren arloko legeriaren arabera) bateragarritasunaren inguruko galdera.

2.- Argitu behar den lehenengo gaia da EEB honen jardun esparruak barne hartzen dituela

Plan de Acción conjunto 2018-2020[2] (en adelante, Plan). Este Plan debía ser co-creado con la ciudadanía por lo que, además del grupo promotor (las 7 administraciones promotoras de la candidatura a las que posteriormente se unió EUDEL-Asociación de Municipios Vascos, con el apoyo de Innobaque), se creó un Foro Regular participado por 8 representantes de las instituciones promotoras y 8 representantes de la sociedad civil. Después de un proceso largo de participación y autoselección, se constituyó formalmente el denominado Foro Regular, cuya función es, entre otras, validar las propuestas que se hacen desde el Grupo Promotor.

El Plan consiste en el desarrollo e implementación de 5 compromisos adoptados por todas la instituciones implicadas (Rendición de cuentas a través de los Planes de mandato; Open data Euskadi y linked open data; Ilab de participación ciudadana en Euskadi; Open Eskola (Escuela abierta para la ciudadanía); y Sistema Vasco de Integridad) que deben ser ejecutados en dos años y, para ello, además de un trabajo enorme por parte de las instituciones, se contempla la posibilidad de necesitar contratar algunos servicios de expertos en la materia.

Es de aquí de donde deriva la pregunta de si resulta compatible o no formar parte de dicho Foro Regular y ser, a su vez, contratado (conforme a la legislación vigente en materia de contratación) para el desarrollo de algunas de las acciones previstas en alguno de los compromisos.

2.- La primera cuestión que resulta necesario aclarar es que el marco de actuación de esta CEI

[2] http://www.ogp.euskadi.eus/documentos/-/documentacion/ogp/plan-de-accion/

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparru barruan garatutako tresnen aplikazio eremuak; kasu honetan, KPJK kodea.

comprende el ámbito de aplicación de las diferentes herramientas desarrolladas en el marco de Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa; en el campo que nos ocupa, el CCCP.

KPJK kodearen helburuaren inguruko atalean jasotzen denaren arabera, kode honek lortu nahi duena da "kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzea, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzaileentzat".

Tal y como el CCCP recoge en su objeto, lo que se pretende es establecer “los valores éticos y normas de conducta, así como los principios de buena gestión y normas de actuación profesional que deben presidir las actuaciones en materia de contratación pública, tanto de los cargos públicos y empleadas y empleados públicos forales en todas aquellas actividades profesionales relacionadas con el ejercicio de sus funciones, como de las empresas y entidades licitadoras intervinientes en procedimientos de contratación”.

Hau da, KPJK kodeak bi helburu nagusi ditu: a) barneko helburu bat, kontratu publiko baten edozein fasetan parte hartzen duten foru aldundiko kargu publiko eta langile publikoei zuzendutako jarduera esparru bat sortzea; eta b) kanpoko helburu bat, lizitazio publikoetan parte hartzen duten enpresa eta erakundeen aldetiko KPJK kodea urra lezaketen jokabide potentzialak mugatzea.

Es decir, que el CCCP tiene dos vertientes: a) una interna, para crear un marco de actuación dirigido a cargos públicos forales y personal del sector público foral interviniente en cualquier fase de un contrato público; y b) otra externa, con el fin de limitar las posibilidades de existencia de potenciales comportamientos que puedan vulnerar el CCPC por parte de las empresas y entidades concurrentes a las licitaciones públicas.

Honela xedatzen da KPJK kodearen helburuaren inguruko 1.3 eta 1.4 artikuluetan:

> *1.- Helburua*
>
> *(...)*
>
> *1.3.- Kontratazioaren alorrean Kodeak lanbide orientaziorako gida izan behar du foru langile publikoentzat Gipuzkoako gizartearen zerbitzuari dagokionez, horien eginkizunak betetzerakoan profesionaltasuna eta inpartzialtasuna sendotzeko premia ezartzen baitu.*
>
> *1.4.- Orobat, enpresa eta entitate lizitatzaileek eta*

Así queda delimitado en los artículos 1.3 y 1.4, en relación al objeto del CCCP:

> *1.- Objeto*
>
> *(...)*
>
> *1.3.-El Código ha de servir como guía de orientación profesional en materia de contratación del funcionariado público foral en el servicio a la sociedad guipuzcoana, estableciendo la necesidad de reforzamiento de su profesionalidad y de las garantías de imparcialidad en el ejercicio de sus funciones.*
>
> *1.4.- Asimismo, define las obligaciones que las*

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

*kontratuaren esleipendunek errespetatu beharreko betebeharrak zehazten ditu, kontratazio prozesuaren zuzentasunaren onerako eta gizartean gardentasunaren kultura sustatzeko, eta horren bidez prebentzio kultura bat (arrisku esparruak) garatuko da, kontratazio publikoaren prozesua gardentasun handiagoz hornituko da eta kontratazio publikoan lehia handiagoa sustatuko da.*

*(...)*

Eta, halaber, aplikazio eremua definitzen duenean (3. art.):

*3.- Aplikazio eremua*

*Kode honek zehaztu egiten du zein diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kontratazio publikoko prozesuetan parte hartuko duten kargu publikoen eta funtzionarioen eskakizun etikoak eta kudeaketa onekoak, eta era berean horien profesionaltasuna (prestakuntza) sendotzeko eta eginkizunetan inpartzialtasuna bermatzeko beharra ezartzen du.*

*Enpresa eta entitate lizitatzaileei dagokienez, jarduera esparrua ezarri nahi du kontratazio prozeduraren zuzentasunaren berme gisa, eta nahitaez betebeharrekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko direnentzat eta horien esleipendunentzat.*

*(...)*

Argi dago, beraz, EEB honek kontsulta hau aztertu ahal izateko kasu posible bakarra dela Foro Erregularrean herritarren ordezkari gisa parte hartzen duten pertsonek edo erakundeek Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzuak eskaini nahi izatea Planaren konpromisoetan garatutako jardueraren bat egikaritzeko, izan ere, kasu horretan bakarrik izango litzateke aplikagarria KPJK kodean xedatutakoa.

Ondorioz, EEB honek ebazpen honetan burututako hausnarketak kontuan hartzea

*empresas y entidades licitadoras y adjudicatarias del contrato deben respetar en aras a la integridad del proceso de contratación pública y el fomento de la cultura de la transparencia en la sociedad, desarrollando con ello una cultura de prevención (marcos de riesgo) en la materia y dotando de una mayor transparencia al proceso de contratación pública, así como promoviendo una mayor competencia en la contratación pública.*

*(...)*

E igualmente cuando define el ámbito de aplicación (art. 3):

*3.- Ámbito de aplicación*

*El presente Código define cuáles son las exigencias éticas y de buena gestión de la Administración Foral de Gipuzkoa, de los cargos públicos y de los funcionarios y funcionarias que participen en los procesos de contratación pública, así como establece la necesidad de reforzamiento de su profesionalidad (formación) y de las garantías de imparcialidad en el ejercicio de sus funciones.*

*Respecto de las empresas y entidades licitadoras pretende establecer el marco de actuación en garantía de la integridad del procedimiento de contratación resultando de obligado cumplimiento para las que concurran a licitaciones promovidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y a sus adjudicatarias.*

*(...)*

Queda claro, pues, que esta CEI solo puede entrar a analizar la consulta si parte del supuesto de que una de las personas o entidades participantes en representación de la ciudadanía en el Foro Regular pretendiera prestar servicios a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la ejecución de alguna de las actividades necesarias para el desarrollo de alguno de los compromisos del Plan, pues solo de esta forma procede la aplicación de lo establecido en el CCCP.

Por lo tanto, las consideraciones que esta CEI haga en esta resolución deben ser contempladas

JAKI13166617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

derrigorrezkoa izango da bai Gipuzkoako Foru Aldundiko goi kargu eta funtzionarioentzat eta baita Planaren esparruan Foru Aldundiarekin kontratuak izenpetzen dituzten pertsona edo erakundeentzat ere. Dena den, hausnarketa horiek ez dira inolaz ere derrigorrezkoak izango Talde Sustatzailean edo Foro Erregularrean parte hartzen duten gainerako alderdientzat, beren borondatez jarduera gidalerro gisa hartu nahi badituzte salbu.

obligadamente tanto por los altos cargos y el funcionariado de la Diputación Foral de Gipuzkoa como por las personas o entidades que pudieran contratar con ella en el marco del Plan, pero en ningún caso resultan obligatorias para el resto de participantes ni del Grupo Promotor ni del Foro Regular, sin perjuicio de que voluntariamente puedan tomarlo en consideración como guía de actuación.

3.- Kontsultan azaldutakoaren arabera, kasu honetan xedatutako betebeharren kanpoko alderdia hartu behar da kontuan, izan ere, zalantza sortu da Foru Administrazioarekin kontratatu nahi duten enpresen inguruan.

3.- Según se expone en la consulta, en este caso debemos de atender a la dimensión externa de las obligaciones establecidas, pues la duda surge en torno a las empresas que quieran contratar con la Administración foral.

Abiapuntu moduan, Foro Erregularreko kideen eginkizuna zein den ezagutu behar da.

Como punto de partida, resulta necesario saber cuál es el papel de los miembros del Foro Regular.

Planaren arabera, Foro Erregularrak *eztabaidarako eta proposamenerako organoa den aldetik, planaren inplementazioa monitorizatzen du eta autoebaluazioari buruz eztabaidatzen du eta zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu.* Euskal administrazio publikoen eta antolatutako eta antolatu gabeko herritarren arteko partaidetza eta lankidetza areagotzeko egituratutako eta diseinatutako espazio informala da, elkarrizketarako eta baterako sorkuntzarako espazioak bilatzeko xedea duena, Euskadin gobernu irekia sustatuko duen ekintza plan bat diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea ahalbidetzen duten ahotsen aniztasuna bermatuta.

Según el Plan, el Foro Regular es un *órgano deliberativo, de propuesta, que monitorea la implementación del plan y que delibera sobre la autoevaluación y realiza propuestas de corrección y mejora.* Un espacio informal estructurado y diseñado para maximizar la participación y la cooperación entre las administraciones públicas vascas y la ciudadanía organizada y no organizada, que busca generar espacios de diálogo y co-creación garantizando la pluralidad de voces para diseñar, implementar y evaluar un Plan de acción de impulso al gobierno abierto en Euskadi.

Planak berak argi eta garbi mugatzen ditu bere eginkizunak (60. orria):

El propio Plan delimita claramente sus funciones (pág. 60):

*Foro Erregularrak honako eginkizun hauek ditu:*

- *Euskadin gobernu irekia sustatzeko urte biko (2018-2020) plana elkarlanean*

*Las funciones del Foro Regular son las siguientes:*

- *Contribuir al codiseño del plan bienal 2018-2020 para el impulso del gobierno abierto*

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

*diseinatzen laguntzea, hots:*

- *Egoeraren diagnostikoa egitea eta hasi behar diren erronkak identifikatzea.*
- *Ekintza planean sartu beharreko konpromisoak ezartzean lehentasunak identifikatzea.*
- *Urte biko 2018-2020 plana formalizatzea (prozesua, gertaerak, adierazleak...).*

- *Plana ezartzeko prozesua monitorizatzea, eta ezarrita dauden konpromisoak hobetzeko eta zuzentzeko proposamenak egitea.*
- *Planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioa egiten laguntzea.*
- *2020-2022 aldirako planaren plangintza egiten laguntzea.*
- *Gomendioak eta proposamenak jasotzea lehenengo planari buruz, ezartzeko eskakizunei buruz eta planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioari buruz.*
- *Beste eragile batzuk erakartzea (foro irekia, konpromisoko taldeak) OGParen jarduerak gauzatzera (zuzeneko topaketak, kontsulta irekiak, jarraipen eta ebaluazio prozesuak...).*
- *Egindako jardunaren gaineko informazioa eta kontuak ematea, modu irekian eta elkarlanean.*

*en Euskadi, lo que conlleva:*

- *Diagnóstico de situación e identificación de desafíos a acometer*
- *Identificación de prioridades para el establecimiento de compromisos a incluir en el Plan de acción*
- *Formalización del plan bienal 2018-2020 (proceso, hitos, indicadores…)*

- *Monitorear el proceso de implementación del plan y proponer mejoras y correcciones a los compromisos establecidos.*
- *Colaborar en la evaluación del cumplimiento de los compromisos del Plan*
- *Contribuir a la planificación del siguiente Plan 2020-2022*
- *Recibir recomendaciones y propuestas sobre el diseño del primer plan, sobre los requerimientos para la implementación y sobre la evaluación del cumplimiento de los compromisos del Plan*
- *Involucrar a otros actores (Foro abierto, grupos por compromiso) en actividades de la OGP (encuentros presenciales, consultas abiertas, procesos de seguimiento y evaluación…)*
- *Informar y rendir cuentas de su actividad de modo abierto y colaborativo*

Bi lehenak dira aztertzen ari garen kasurako esanguratsuak direnak: Planaren elkarlaneko diseinuarekin eta garatu beharreko konpromisoen monitorizazioarekin lotutakoak.

Son las dos primeras que se señalan las que parecen tener relevancia en el asunto que nos ocupa, las relativas al co-diseño del Plan y la monitorización de los compromisos a desarrollar.

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

Plan baten elkarlaneko diseinua lortzeko kide guztiek (kasu honetan, Foro Erregularrak), erakundeek eta sozietate zibilak beren ekarpenak eta iradokizunak egin behar dituzte amaierako Plana onartzeko orduan. Berez, Foro Erregularrean adostu dira amaierako konpromisoak eta mugarriak. Hori ondoriozta daiteke Planetik, konpromisoak definitzeko jarraitutako prozesua azaltzen duenean, izan ere, konpromiso posibleen inguruan jasotako 41 fitxetatik, Foro Erregularrak amaierako bost konpromisoak erabaki zituen bere 2018ko ekainaren 14ko bileran (Planaren 8. orria). Beraz, Foro Erregularra da Planaren akordio erabakigarriak hartzen dituena, ohiko bileretan aho batez eta, ezohiko kasuetan eta kideen erdiak hala eskatzen duenean, gehiengo oso bidez (Planaren 61. orria).

El co-diseño de un plan sugiere que todas las partes integrantes (del Foro Regular en el caso que nos ocupa), instituciones y sociedad civil, han hecho sus aportaciones y sugerencias a la hora de adoptar el Plan definitivo. De hecho, es en el Foro Regular donde se han consensuado los compromisos e hitos definitivos. Así se desprende del Plan, cuando señala el proceso seguido para la definición de compromisos, pues de las 41 fichas recogidas sobre posibles compromisos fue el Foro Regular, en su sesión del 14 de junio del 2018, quien acordó los 5 compromisos finales (pág. 8 del Plan). Por lo tanto, el Foro Regular, como tal, es quien adopta los acuerdos decisivos del Plan, con carácter ordinario por unanimidad y solo con carácter extraordinario, y cuando así lo soliciten la mitad de los miembros, por mayoría absoluta (pág. 61 del Plan).

Planaren inplementazio faseari dagokionez, bertan jasotzen denaren arabera, talde bat sortuko da konpromiso bakoitzeko eta talde horiek izango dira konpromiso bakoitzaren garapena burutzearen arduradunak, autonomia maila jakin batekin. Talde bakoitza, aldi berean, Talde Sustatzaileko erakunde baten edo gehiagoren zuzendaritzapean egongo da, taldeko gainerako erakundeen eta herritar antolatuen eta ez antolatuen partaidetza izango du eta, besteak beste, Foro Erregularrari kontuak emateko betebeharra izango du (Planaren 24. orria). (Puntu honetan argitu beharra dago, kontsultan aipatzen ez diren arren, Foro Erregularrean zein konpromiso bakoitzerako taldean herritar antolatuen eta ez antolatuen parte hartzea dagoela eta, beraz, herritar horiek egoera berean daudela kontuan izanda, hemen burutuko ditugun hausnarketek bi talde hauetako kideei eragiten dietela, Foro Erregularra soilik aipatzen badugu ere, kontsultaren xede izanagatik).

En cuanto a la fase de implementación del Plan, tal y como se recoge en él, se crearán diferentes Grupos por Compromiso que serán los que realicen el despliegue de cada compromiso, admitiéndoles cierto grado de autonomía. Cada grupo, a su vez, estará liderado por una o varias instituciones del Grupo Promotor y coparticipados por el resto de las instituciones del grupo y ciudadanía organizada y no organizada, y tendrá la obligación de rendir cuentas, entre otros, al Foro Regular (pág. 24 del Plan). (En este punto hemos de señalar que, a pesar de no mencionarse en la consulta, al estar participados tanto el Foro Regular como del Grupo por Compromiso por ciudadanía organizada y no organizada y encontrarse, por lo tanto, en idéntica situación, las consideraciones que vayamos a realizar se proyectan en relación a los integrantes de ambos grupos, aunque haremos referencia al Foro Regular, que es lo que propiamente se consulta).

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

Beraz, bi eginkizunetatik ondorioztatzen da Foro Erregularreko kideek proiektuaren fase guztietan parte hartzen dutela, hau da, Planaren diseinuaren eta onarpenaren fasean parte hartu zutela, bost konpromisoen definizioa barne hartuta, eta inplementazio fasean ere parte hartuko dutela garapenaren gainbegirale moduan.

De ambas funciones se desprende, pues, que los integrantes del Foro Regular están presentes en todas las fases del proyecto, es decir, estuvieron en la fase de diseño y consenso del Plan, incluidos sus 5 compromisos, y participarán en la fase de implementación, monitoreando su despliegue.

Hasierako irakurketaren ondoren, planteatzen den zalantza argia da, kontsultan bertan azaltzen den bezala: galdera da etikoa den ala ez Foro Erregularrean parte hartzea, kontuan izanda Planaren arabera bertan balioesten eta erabakitzen direla proiektuaren erabaki nagusiak, eta aldi berean hautagaitza aurkeztea (eta, agian, esleipendun izatera iristea) Plan horren garapenerako beharrezkoak diren zerbitzuak emateko.

Tras una primera lectura, la problemática que se plantea es clara, tal y como se plantea en la consulta: si resulta ético participar en el Foro Regular donde, según se señala en el Plan, son validadas y acordadas las decisiones capitales del proyecto y postularse candidato (y quizás llegar a ser adjudicatario) a su vez para la prestación de algún servicio necesario para el desarrollo de dicho Plan.

4.- Alde batetik, argi dago proiektuaren baitako ideietan, konpromisoetan eta erabakietan parte hartzearen ondorioz Foro Erregularreko kideak, zalantzarik gabe, gainerako herritarrak baino egoera abantailatsuagoan daudela, bai inork baino lehen jasotzen duten informaziori esker eta baita konpromisoekin lotutako jarduerak proposatzeko orduan edo erabakiak hartzeko orduan eragina izateko duten aukerari esker ere.

4.- Por un lado, concurre la circunstancia de que al ser partícipes de las ideas, compromisos y toma de decisiones en el seno del proyecto, innegablemente los miembros del Foro Regular se encuentran en una posición cualificada sobre el resto de la ciudadanía, tanto por la información que poseen en primicia como por la posible capacidad de influir a la hora de proponer actividades relacionadas con los compromisos o en la toma de las decisiones.

Gogora dezagun KPJK kodean jasotzen diren jokabide arauen printzipio eta balioen helburua dela "kontratu publikoetako enpresa eta entitate lizitatzaileen eta esleipendunen jardueraren zintzotasun, gardentasun eta zuzentasuna bermatzea" (1.3). Honela ezartzen da tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa:

Debemos recordar que las normas de conducta que se recogen en el CCCP se basan en unos principios y unos valores que quieren servir de "garantía de honradez, transparencia e integridad en la actuación de las empresas y entidades licitadoras y adjudicatarias de contratos públicos" (1.3). De esta forma se establece el principio de igualdad de trato y no discriminación:

*2.- Printzipioak*

*(...)*

*b) Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza*

*2.- Principios*

*(...)*

*b) Principio de igualdad de trato y no*

JAKI1316617b-7803-4ef1-97c8-86874aff4d04

*printzipioa. Tratu berdintasun eta diskriminaziorik eza printzipioaren bidez, konparagarriak diren egoerek tratu desberdina ez izatea eta egoera desberdinak berdin ez tratatzea exijitzen da. Kontratazio publikoan parte hartzen duten enpresen artean lehia oso eta eraginkorra garatzea aldeztu nahi da. Eskaintzak azaltzerakoan lizitatzaile guztiek aukera berak izatea exijitu beharra dago, baita eskaintza horiek lehiakide guztientzat baldintza beren mendean egotea ere.*

*(...)*

*discriminación. Mediante el principio de igualdad de trato y no discriminación se exige que las situaciones comparables no reciban un trato diferente y que no se trate de manera idéntica situaciones diferentes. Se pretende favorecer el desarrollo de una competencia sana y efectiva entre las empresas que participan en una contratación pública. Es exigible que todos los licitadores dispongan de las mismas oportunidades al formular los términos de sus ofertas y que éstas estén sometidas a las mismas condiciones para todos los competidores.*

*(...)*

Galdera agerikoa da: baldintza berdintasunean al daude, lizitatzen diren zerbitzuen beharren inguruko informazioari dagokionez, Foro Erregularrean parte hartzen duten pertsonak edo erakundeak eta gainerako pertsonak eta erakundeak?

La cuestión resulta evidente: ¿se encuentran en igualdad de condiciones, en lo que a información relativa a las necesidades de los servicios que se licitan se refiere, las personas o entidades que participan en el Foro Regular y las que no?

Foro Erregularreko kideek eskura dezaketen informazio pribilegiatuaren inguruko gaia kontratuen prestaketa eta diseinu fasean planteatu ohi diren aurretiko merkatuko kontsulten antzekoa da. KPJK kodeak honakoa dio honi buruz:

*5.1.- Indarrean dagoen araudiaren arabera formalizaturik dauden aldez aurreko merkatuari buruzko kontsultetan parte hartuko dutenean, baita premiak, helburua eta baldintzak, preskripzioak, prezioak, plangintza zehazterakoan edo lizitazioaren prozedura aukeraketan ere, ez dute lehia murrizteko asmorik izango, eta lehiaren existentzia zein lizitatzaile zehatz batentzako abantailarik ez egotea ziurtatu beharko da.*

